


Ingvar Kamprad

tokiko arrakasta, garapen globala

1 958. urteko egun euritsu bat, Smoland-go basoetan barrena egindako bidai luze eta zailaren ondoren, ehunka lagunek hainbat ordu itxaron zuten Suediako hegoaldeko herrixka batean, munduko lehen Ikea merkataritza-gunea zabaldu arte. Ia hirurogei urte beranduago, bero izugarria egingen zuen egun batean, hiru lagun hil ziren Jeddá-n, Saudi Arabiako mendebaldean, Pertiako Golkoko herrialde honetan enpresa suediarrek ipini zuen lehen denda zabaltzeko zain zeuden ehunka gizon eta emakumeen jende-oldeak eraginda. Ingvar Kamprad gazte ekintzaile suediarrek, 1943. urtean Älhmüt izeneko bere eskualdean diseinatu zuen negozio eredu arrakastatsua abian jarri zuenetik bost hamarkada baino gehiago igaro ondoren, Ikea-ren denda berri bat zabaldu duten bakoitzean milaka bezero pilatu dira sarreran. Berrogeita hamar urtetan, bere sektorearen buruan jarri den enpresa bilakatu da.

Altzariak fabrikatu eta saltzen talde global handia bihurtu den Ikea, tokiko ekimen txiki eta oso errentagarri bezala hasi zen. Konpainiaren izenak berak hurbiltasuna adierazten du, eta bere sortzailearen izenaren -Ingvar Kamprad-, bere granjaren -Elmtaryd- eta bera hazi zen Suediako Smoland probintziako herrixkaren -Agunnaryd- izenen lehen letrekin osatu zuen. Hasieran enpresa-proiektua, inguruko abeltzainei erantzuteko sortu zen, eta bere dendako boligrafoak, diru-zorroak, erlojuak eta etxeko tresnak bezalako hainbat gauza,



Ingvar Kamprad, IKEA enpresaren sortzailea

Kamprad-ek berak bere bizikletan abeltzainen etxeraino eramaten zituen.


Oso denbora laburrean, konpainia hazi egin zen eta, posta bidez, bezeroen gero eta eskaera gehiagori erantzuten hasi zen. 1948. urtean, Kamprad-ek, bere enpresa-proiektu hasiberria zenaren arrakastaren ardatz bihurtuko zen erabakia hartu zuen: katalogoan, altzarien salmenta sartzea.

Une horretatik aurrera, Ingvar-en bizitza enpresariala asko aldatu zen eta Ikea marka asko handitu zen: 1950. urtean, Kamprad-ek etxeko altzariak bakarrik saltzea erabaki zuen. Urte bete beranduago, 1951.ean, enpresak lehen altzari katalogoa plazaratu zuen. Gaur egun, oraindik, enpresaren marketing-tresna nagusi bezala erabiltzen dute. 1953. urtean, bere hiriaren kanpoaldean, Ikea produktuen lehen erakusketa (ez salmenta) antolatu zuen. Ekimenak izandako arrakasta ikusita, iragan mendearen erdialdean Suedian arlo horretan nagusi zen kartela, hornitzaileak presionatzen hasi zela Ikeari gehiago ez hornitzeko. Gainera, Ikea, sektoreko azoka nagusienetatik kanpo utzi zuten.

1955. urtearen eta 1958. urtearen artean, lehiakideek sortu zuten aurkako giroari erantzunez, Kamprad-ek, gaur egun Ikea Taldea dena bideratuko zuten funtsezko beste hiru erabaki hartu zituen: eurek sortutako altzariak diseinatu, fabrikatu eta saltzea; lehengaiak kanpotik inportatzea, batez ere Asiako hainbat herrialdetatik; eta euren erakusketa-zentrotara mugatzea. Zentro horiek, ondoren, salmenta-puntu handiak bilakatu ziren. Horrela sortu zen lehendabizikoa 1958. urtean Älmhult-en. Bost urte beranduago, 1963. urtean, Ikeak Suediatik kanpo lehen denda zabaldu zuen Oslon (Norvegia); 1965. urtean Kungens Kurva-n (Stockholm), taldearen denda nagusia izan behar zuena zabaldu zuen, 45.800 metro karratu eta New York-eko Guggenheim museoan oinarritutako diseinu zirkularrarekin. Une horretatik aurrera, Ikea Taldea etengabe zabaldu da, Europako enpresa multinazional nagusietakoa bihurtu



Ingvar Kamprad gazte ekintzaile suediarak, 1943. urtean Älmhult izeneko bere eskualdean diseinatu zuen negozio eredu arrakastatsua



"Forbes"
aldizkariak
munduko
pertsona abe-
ratsenen arte-
an sailkatu
zuen.

arte. 200 lokal baino gehiago ditu berrogeita hamar herrialdetan sakabanatuak, 84.000 laguni lana ematen die, eta 2004. urteko balantzea 12.800 milioi euroko fakturazioarekin amaitu zuen.

Suedian normala da esatea, XX. mendearen erdialdeko buruzagi sozialdemokrata zen Per-Albin Hansson-ek Herriko Etxea sortu zuela, baina Ingvar Kamprad-ek hornitu zuela altzariz. Hain zuzen ere, Ikearen sortzaileak, mozkinak lortzeaz gain (bere aberastasuna 17.500 milioi eurokoa dela diote), "pertsonek euren etxeetan gustura egon daitezten" zaindu du. Helburu hau egi bihurtu du, produktuen %50 saltzen duen Europar Batasunako herrialdetako herritar askoren kasuan. Europaren esparru honetan, bere garaian Kamprad-i poz handia eman zion Errusian Ikea-ren bi denda (Mosku eta San Petersburg) irekitzeak, eta horri buruz honako hau zioen: "Errusiako etxeak altzariz hornitzea nire betiko ametsetako bat zen, Errusian ez bezala, Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan beti dagoelako gauzak eskuartzeko aukera".

Ikeak arrakasta handia lortu arren, jendaurrean hitz egiteko eta hedabideetan azaltzeko mesfidati izan den Kamprad-ek kritika asko jaso ditu eta hainbat gauza salatu dizkiote; adibidez, Ikea heldu den herrialde arabiarretan emakumearen zapalketan konplize izan dela, eskulan merkea duten eskualdetan hornitzaileak dituela, edo hirugarren munduko herrialdetan haurren lanez baliatu dela. Izan ere, garapen-bidean dauden hainbat herrialdetan Ikeak izandako jokabidearen inguruan egindako salaketek eraginda, konpainia, gaur egun, erantzukizun sozial korporatiboarekin eta ingurumena errespetatzearekin lotutako hainbat alderditan eredu bihurtu da. Bestalde, enpresak, Suediako fabrikak ez ditu eskulan merkeagoa duten herrialdetara eraman, eta bertako langileek ondo baloratzen dute antolakuntza. Dena den, nazien aldeko joerak eta jada gainditu zuen alkoholzaletasunaren salaketek egin diote min handiena Ingvar Kamprad i. Talde neonaziekin garai batean izandako harremanari buruz, Kamprad-ek publikoki adierazi du damu dela "nire bizitzako akats handienagatik".

Beti metroan bidaiatzen duelako zekentzat salatzen dute, Volvo zahar baten gidari damugabea da, langile nekazina, bere laguntzaileek errespetatzen dute eta zorigaitz pertsonalak ere izan ditu bizitzan. Ingvar Suitza eta Suedia artean bizi da, 80 urterekin eta oso osasuntsu. "Forbes" aldizkariak munduko pertsona aberatsenen artean sailkatu zuen. Ikea-ren sortzaileak onartu du bere lekua beste bati uzteko unea heldu dela, modu batera edo bestera, beti "mirari suediarren egile" bezala gogoratuko duten arren. Kamprad-ek hiru seme ditu: Peter (39 urte), Jonas (37) eta Mathías (34); hauek, aitaren alboan, enpresaren eboluzioan hartu dute parte. Mathías, gazteena, duela gutxi Danimarkako sukurtsaleko buru izendatu zuten. Enpresan goi-mailako karguak ere betetzen dituzten beste bi anaiak, edozein unetan zuzendaritza goreneko karguak hartzeko prest daude.

Suedian normala da esatea, XX. mendearen erdialdeko buruzagi sozialdemokrata zen Per-Albin Hansson-ek Herriko Etxea sortu zuela, baina Ingvar Kamprad-ek hornitu zuela altzariz

Ikea-ren arrakastaren hainbat gako

- Oso hornitzaile espezializatuak bilatzea, hauen produzitzeko modu kontu handiz gainbegiratzea eta eskaera handiak egitea.
- Pakete lauetan bildu daitezkeen moduko altzariak fabrikatzea, biltegitratze eta banatzeko kostuak merkatzeko. Salmenta-sistema berezi baten ondorio gisa, dendako biltegitik altzaria bezeroak berak jasotzen du eta etxean muntatzen du.
- Etxerako objektuen eta altzarien diseinu orijinalak eta berezkoak.
- Prezioekin lehiatzeko gaitasun handia; hainbat produktu-lineatan, beste enpresek eskaintzen dituzten antzeko elementuekin alderatuta, %50 merkeago dira.
- Marketing-jarduera eraginkorra. Adibidez, konpainiak urtean argitaratzen dituen bi katalogoak (udaberria eta udazkena) bezeroek hainbat aste lehenago eskatzen dituzte, eta kioskotan ere jartzen dituzte salgai. Ohiko hedabidetan publizitate garrantzitsua eta etengabe egiten dute. Halaber enpresaren irudia oso zaindua dago Interneten.